

Giza Eskubideen Deklarazioa



DANI BLANCO



Ezkerreko argazkian, Francisco Javier Caballero zuzenbide katedraduna. Eskuinekoan, Guantanamo irudi bat.

60 urte eta gero zer?

“Gizabanako guztiek dute iritzi eta adierazpen-askatasuna (...) Pertsona orok du joan eta etorri aserako eskubidea eta estatu baten barruan bizilekua aukeratzekoa (...) Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu (...) Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere...”

UXUA LARRETXEA

1948KO ABENDUAREN 10A. Bigarren Mundu Guda amaitu zela hiru urte igarota eta Lehen Mundu Gudaren ondorioak oraindik ahaztu gabe zeudela sortu zen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala. Gerraosteko testuingurua zen nagusi. “Bigarren Mundu Gudaren ondorio lazgarriek horrelako deklarazio bat sortzeko espiritu politikoak prestatu zituen eta bere beharra agerian utzi zuen”, azaldu digu Francisco Javier Caballero EHUKo Zuzenbide fakultateko katedradun eta zuzenbidearen filosofia irakasleak.

Caballerok, alabaina, argi utzi nahi izan du giza eskubideak gizakia bera bezain zaharrak direla: “Giza eskubideak gizakiari berari dagozkio”. Alegia, gizakia izateagatik ditu eskubide horiek. “Beste kontu bat da publikoki onartzea, edo konstituzioan ezartzea”. Nolanahi, ezin uka daiteke Giza Eskubideen

Deklarazio Unibertsala sortzeak berebiziko garrantzia izan zuela. Alde batetik, eskubideen alorrean garai horretan zegoen hutsunea bete zuen, eta bestetik, unibertsal izateko jaio zen. Gainera, deklarazio horri esker, gizakiak gizakia izateagatik eskubide batzuk zituela azpimarratu zen. Ondorengo leislazioetako –bereziki, konstituzio demokratikoetako– euskarri axiologiko bilakatu zen deklarazioa eta, hortaz, eskubide horiek oinarritzko eskubide moduan konstituzioetan barneratzen joan ziren. “Eta horrek esangura berezia du, hortik aurrera deklarazioko eskubideak betetzea exiji daitekeelako”. Alta, eskubideak konstituzioan barneratzeko prozesua geldoa da eta oraindik orain, herrialde demokratikoak pixkanaka doaz beren konstituzioetan eskubideak barneratzen. Dena den, eskubideak konstituzioetan idatziak izatea gauza bat

da, eta beste bat, eskubide horiek egunerokoa betetzea. Ezaguna denez, herrialde askotan giza eskubideak automatikoki bortxatzen dituzte eta horren aurrean, salaketa asko egin izan dituzte hainbat elkartek.

“Eredu liberalean gero eta gehiago urratzen dira giza eskubideak, eta gero eta erabilerara instrumentalagoa ematen zaie”, dio zuzenbidean adituak. “Merkatuaren eta autoerregulazioaren ereduaren giza eskubideak oztupo dira, ez bada interes politikoek bultzatuta erabiltzeko”. Dena den, batzuetan eskubideen urraketa zenbait herrialderekin –Ekialdeko, Afrikako edo Arabiakoeekin, kasu– baino ez da lotzen, eta badirudi Mendebaldeko “herrialde demokratikoak” gaitz horretatik salbu gaudela. Caballeroren hitzetan, horretan zerikusi handia du herrialde askok beren buruaz egiten duten propagandak: “AEB dugu seguruenik eredurik argiena; giza eskubideen babesle sutsu agertzen den herrialde horretako estatu askotan, heriotza zigorra dago indarrean, eta gerra erabiltzen da demokraziaren eta giza eskubideen izenean. Gainera, preso askori ez zaie inolako eskubiderik bermatzen, animaliak izango balira bezala tratatzen dira”. Hitz horiek entzutean ezinbestean gogoratzen da bat Guantanamoz. Baina AEBak ez da multzo horretan sartzen den bakarra, eta gertuagore ere adibide garbiak ditugu. Hain zuzen, eskubideen “osasuna” neurtzeko baliabiderik badago: NBEko Giza Eskubideen Batzordeak sei urtez behin estatu bakoitzean giza eskubideek bizi duten egoeraren gaineko txostena egiten du. Berriki, Espainiako Estatuaztertu du batzorde horrek eta txostenean datu kezagarriak jaso ditu.

Liberalismoa vs. giza eskubideak

Egun joera zein den ikusirik, etorkizun beltza dute giza eskubideek. Caballeroren ustez, “autore askok babesten dugu munduak etorkizuna izan dezan liberalismoa zokoratzea dela aukera bakarra, eta alor guztietan giza eskubideen garapena sustatzea; bestela, etorkizuna ez da batere oparoa izango”. Horretarako, baina, nahitaezkoa da jabetzea egungo bideak ez garamatzala inora, besteak beste, “egun, planeta guztia suntsitzeko adina energia nuklear dugulako, baita poluzioaren minbizi geldoa ere”. Arrazoi horiek medio, etorkizunean aldaketa esanguratsuak ikusiko ditugula uste du, jendeak bizitzarekiko ikuspegia aldatuko duela, eta hor aurkituko

Deklarazioaren sorrera

1945ean, Nazio Batuen Erakundeko Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak Giza Eskubideen Batzordea eratu zuen. Bertan, NBEko kide ziren hemazortzi herrialdeetako ordezkariak biltzen ziren, eta giza eskubideak babesteko baliabideak sortzeko ardura egokitu zitzairen. 1848ko abenduaren 10ean, Parisen, NBEko Batzar Orokorak Giza Eskubideen Deklarazioaren egitasmoa bozkatu zuen, eta 48 aldeko, zortzi abstentzio eta kontrako bozik gabe aurrera atera zen. Giza Eskubideen Deklarazioa hitzaurre batez eta 30 artikuluz osatuta dago. Artikulu horietan biltzen dira izaera zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturala duten eskubideak.

dutela giza eskubideek beren garapenerako abiapuntua.

Giza Eskubideen Deklarazio Uniberttsala ez da loteslea, ez derrigorrezkoa. Hori oztupo da eraginkorra izateko, giza eskubideak urratzea oso merkea baita. Baina derrigorrezko bihurtzea ez da erraza, 48ko Mendebaldeko deklarazio horretaz gain beste deklarazio batzuk ere badaudelako; hala nola, Beijingoa, arabiarra edo afrikarra. “Arazoa da deklarazio horiek ere uniberttsal izan nahi luketela”, azaldu du Caballerok. Kultura eta filosofia ezberdineko deklarazioak dira, bizitza ulertzeko modu desberdinak erakusten dituztenak. Beraz, bakarra munduan inposatzea lan nekeza da. “Horri gehitu behar zaio potentzia handiek giza eskubideak nahi dituztenean soilik hartzen dituztela aintzat eta, hortaz, zein neurriraino interesatuko zaie deklarazioa derrigorrezkoa izatea?”.

Gainera, zuzenbideko filosofo moduan, gizartea ahalik eta gutxien arautzearen aldekoa da Caballero. Gizartean baloreak berrezarri behar dira eta hori baloreetan oinarrituriko hezkuntzaren bidez lor daiteke soilik. “Jendeak kontzientziak eskatzen diolako bete behar du bere eginbeharra”. Giza eskubideak balore bakarrean laburbiltzen direla ere gogoratu du: “Duintasuna; pertsona orok duintasunaren kontzientzia izango balu, nahikoa izango zatekeen giza eskubide moduan”.

Caballeroren aburuz, maila pertsonalean giza eskubideekiko kontzientzia areagotuz doa, baina, aldi berean, desoreka bat nagusitzen ari da: “Denok nahi ditugu eskubideak izan, baina inork ez du ezerean ardura hartu nahi”. Zentzu horretan, gogorarazi digu gizartean bizitzeko ezinbestekoa dela elkarrekin. ■

Mendebaldeko deklarazioa derrigorrezko bihurtzea zaila da, uniberttsal izan nahi duten beste deklarazio batzuk ere badaudelako; hala nola, Beijingoa, arabiarra edo afrikarra